

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak atzeraeraginezko izaerarekin urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko du AP-15 autobideko bidesariaren hobaria 24 ordutan joan-etorriko ibilbideak egiten dituzten Vía-T duten ibilgailu arinetarako

Foru Erkidegoak 12 miloi euro inbertituko ditu ondorio horretarako, 2018. urterako Estatuko Aurrekontuetatik eratorrita

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

Foru Exekutiboak gaurko bilkuran erabaki du osagarrizko hobari berri bat aplikatzea Nafarroako Autopistatik (AP-15), 24 ordutan joan-etorriko ibilbideak egiten dituzten Vía-T duten ibilgailu arinetarako eta bidearen emakidadunarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena eman du, Audenasa, alegia; hobari berri hau Nafarroako Gobernuak, dagoeneko, bide honetan, aurreko mendeko laurogeita hamarreko hamarkadatik aplikatzen dituen [deskontuen politika](#)ren barne sartzeko.

Neurria atzeraeraginezko izaerarekin aplikatuko da, urtarrilaren 1etik aurrera, ibilgailu arinetarako (I. mota) ordainleku berberaren artean 24 ordutan egindako joan-etorriko ibilbidetan, bide honen emakidadunarekin lotutako OBE Vía-T gailua badute, Nafarroako Gobernua eta Audenasa artean 2008ko martxoaren 14an sinatutako hitzarmenaren arabera. Erabiltzaile hauek orain arte ordaintzen zuten BEZa ordaindu besterik ez dute egin beharko.

Gobernuan akordio hau hartu du, aurreko ostiralean, urtarrilak 18, Sustapen Ministerioak baieztatu ondoren, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorretako 12 milioi euro neurri honetarako erabiliko direla.

Ibilgailu arinetarako deskontu berri hau dagoeneko indarrean dauden (beti Audenasarekin lotutako Vía-T gailuetarako) eta foru kutxetatik finantzaturako deskontuez gain aplikatuko da, besteak beste, ibilgailu arinei dagokienez, deskontu zehatzak (oinarrizko prezioaren %40 inguru), itzulera doan 72 ordutan baino lehen eginez gero AP-15 ohiko moduan erabiltzeagatiko deskontuak. 2019ko ekitaldi honetan, Nafarroako Aurrekontuek aurreikusi dute 14,2 milioi euro inbertituko direla aipatutako bidea erabiltzea sustatzeko politika honetan. .

Gaur egun, noizean behingo erabiltzaileei dagokienez, egunean bertako joan-etorriko bidaia baterako, dagoeneko existitzen diren deskontuen ondorioz, oinarrizko prezioaren %70 inguruko deskontua egiten zaie. Deskontu berriarekin, beharpen hau oinarrizko prezioaren % 94 inguruan kokatzen da. Ohiko erabiltzaileei dagokienez, zegoen deskontua askoz altuagoa zen. Hilabete bereko joan-etorriko 20 bidaietarako, dagoeneko zeuden deskontuen eraginez, oinarrizko

prezioaren %96ko deskontua aplikatzen zen. Hobari berriarekin, beherapen honek oinarritzko prezioaren %98tik goraxeago egiten du.

Deskontu berria indarrean egongo da Estatuak ondorio horretarako ezarritako zuzkidura kontsumitu arte eta, horrek, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenaren arabera, urte anitzeko indarraldia eduki ahal izango du (3 eta 5 urte bitartera arte, bide honetarako aurreikusitako iqarotze datuen arabera).